

GAZTE NAIZ

BISONTEA ETA ORKATZA

XVII'GN. GIZALDIKO AMODIOZKO
GUTUN BAT

Jun diran 25 milla urte auetan gure arbasoak, ezer idatzirik ezpadigute laga, milla arrasto utzi digute bederen, an-emenka histori zear galdurik, bizi ziranen señaletzat. Bizi zirala, ba zirela, izan zirela ez dago batere dudik; orretaz kanpo deus ere ez dakigu, ez dakigu arrasto orien mandatu, mandaturik baldin badute. Gero ez da arritzekoa ainbeste señaile illunze asperturik, azkenez «garean, garean lez» oiur egin da kito egitea gure kondaira meharrarekin.

Orain kopiatzera noan XVII'gn gizalde-asierako gutun edo karta berruon gortetzen duan sekretuarekin orobat gertatzen zaigu; nolabait ere aditzera ematen digu denbora arteko zaldun eta andere bien VIII'gn Jainkoaren aginduetatik kanpora zebiltzkie amodiozko artu-emanak, aipatzen du ere bere xalanta nor zen, ez baiña bere izenez, izen goitiz baiña (amodiozko histori ziraragarrri bati egoki dagokionez), gutun batzuk (bat bederen) kurutzatu zutela ikusten degu, pentsatzen degu (gaizki pentsatzatzen degu ere) zelakoak izanen ziran emakume xarmant eta aitoren seme bien arteko artu-emanak (gaizki pentsatu behar bada...), baiña ziur gaudez Bordeleko moldiztegiatan etzela beñiere argitaratu amodiozko gutun haiekin eginiako bilduma laburra ala luzea; ez beintzat, dakigunez, «Liaisons Dangeureuses» izenburuarekin. Baliteke ordea (susmo aundia du) «Manual Devotioneoa» sasi-izenarekin agertzea. Baiñan euskal-bibliografiariek ez dute oraindano arrastorik arkitu.

ASTETIK ASTERA

Idoate'ren «Rincones de la Historia de Navarra» dalakoak ba du euskaltzale batek nun irakurririk eta... nun negar egin ere! Puntu bakar bat hartuko dut gogoan: behin eta berriz, Nafarroa guzian zehar, hitz hauek agertzen dira sarritan: «tradúceles lo dicho al bascuenz». Horra hor kaka: herriari itzuli egin zaizkio goitiki etorritako aginduak. Nork eskatzen zuten itzulpen hori? Bergara'n Don Karlos'ek, Idoate'ren liburuari bertako haundikiak eta eskribauek. Haundiak erderaz mintzo ziran, eta herri xehea euskeraz. «Tradúceles al bascuenz...».

Hauxe da gure hizkuntzaren kaka; eta gure herriaren beraren kaka ere hortxe da. Aginduak kanpotik etorri dira beti, eta guretzako itzuliak izan dira betidanik. Nork jakinarazi ditu erderazko agindu horiek? Aiton-semeak, haundikiak, eskribauek, erregeak.

Orain arte, ordea, ez da hau nabarmenerazi. Fenomenoa, halere, aspaldidanik ezaguna da. Larramendi'k egoki dio bere «Corografía'n»: «Los que entienden el castellano (en Guipúzcoa) son los eclesiásticos, los religiosos, los que han estudiado, los caballeros, los que se han criado

IPUI ZAHAR BAT BERRITUA

Automobilla ia etzen kabitzen herriko kaleetan. Izan ere Ameriketako azken modelua ez izaki egokiena Euskal herriko bideetan ibiltzeko, bainan nagusiaren nahiak betetzeko, ezin txikiagoa... Ala ta guztiz ere ezin esan jendeak berak nahi zuten ainbeste begiratzen zioanik. Bazi-durin oitua zueldea automobil zoragarri hura bezelakoak ikusten... Bainan, hau etzen gure gizonaren pozka hiltzako aña. Pozik zegoen, ainbeste urte kanpoan egon ondoren berrito bere Euskal herri ikusten zuelako. Zenbat urte pasiak, zenbat gorabera... Bere Euskal herri maitea... Zerbañt aldatua ikusten zuten, eta aldatuta bakoitzak bihotza mintzen ziola esan behar... Nun ziren bere denbora astoarenkin esnea saltzera jeitzen ziren neska liranak? Baserri txuriak? Abandonaturik... Zelai orlegiak? Zeruk kea basterik ez. Fabrika beltzak, fabrikak leku guzietan... Ez etziren politik fabrikak eta keak; aurrerapenak, ondasunen truk beste zerbañt eskatzen du. Bainan nahiago zituen gauzak lehen bezela, aurrerapenik gabe. Aintziñako baserri txuriak, aintziñako komodidadeekin, artilezko gaitzertak abarkek. Bainan bera automobillean... Herriak euskal kutsua galdu zuela iruditzi zitzaion. Nola aldatu



Dena dela ona emen gosarik lagatzen gaituan gutun orren kopia:

Anaya: Bialico diat gutun bat, Jaunac eman baytaraut galtzerdy zetazko baten barnean, eta eman behar dioc, Jaunac maite duen andreary. Aditzen ezpalinbaduc, andre Orghatza duc... Geure andrea partitzen den egunean edo ondoan eman behar dioc eta erranen badela zerbañt barnean, othoy nihorc ez dezala iqus.

Zedazko galtzerdiak inspiratu genezakean deabruzko burutapenak uxaturik, Jaunac maite duen andrearen izengoitit benetan xarmantak arritzen nau. Ez nuan uste Orkatza oneritza zenik Euskal herrian. Banekian Orioko Altserri aitzuloan dela 25 milla urteko orkatzairen marrazki bat arkitzen dela, baiñan lau metroko bisonte eta dozenaka azeri eta zezenez inguratua ikusirik gizajoa, erruki pittin bat ere ematen zidan.

Hemingwayen. «Norengatik dute errepikatzen kanpaiak» amodio-nobela ederrean Robert Jordan protagonistak «antxume» deitzen dio maitioari alkarrekin maite-solasean ari diran bakoitzean. Antxume eta orkatza frantzezek berdintsuk dira, che-

en Castilla»: dirudunak eta eliz-gizonak, hitz batez; alegia, aiton-semeak eta eliz-gizonak, aspaldiko bi klase nagusiak. Herri xehea euskaldun hutsa da: «todo el resto son puramente vascongados» dio Larramendi'k.

Gauza bera dio Mitxelena'k ere bere «Historia de la Literatura Vasca» dalakoan: «(los euskaldunes de Navarra) no formaban parte de los grupos más influyentes del país... Basta una ojeada a documentos medievales para comprobar que las personas que en Navarra llevan nombres y patronímicos de tipo vasco... abundan entre los collazos y pecheros».

«Tradúceles...». Horra hor! Haundikiak erderaz ari izan dira betidanik. Gaur bertan ere, askotan, haundikiak erderaz ari dira; eta beren aginduak bete ditezten, itzuli-arazi egiten dituzte...

Jokabide horren ondorioak agirian ditugu. Zertarako aipa? Ez dira batere harrigarriak bestalde: munduko edozein alderditan haundikiak hori egin dutenean, bertako hizkuntza ahaztu dutenean alegia, hizkuntzaren eta herriaren beraren amaia etorri da.

Jokabide horri ekin nahi izatea, beraz, gaur

zitekean ainbeste bera kanpoan egon bitartean? Bera Ameriketara joan aurretik... ibai garbiak zelaiak, mendiak, poesiz beteak zuden. Orain berriz... Bainan etzen tristetzeko garaia. Aberatzeko asmoz joan zen Ameriketara eta an gaztetasuna utzi bazuen ere, diru pilla galanta lortu ondoren, berrito bere txokoa zegoen. Gaztetasuna an utzita, hori bai...

Eta gazteak? Euskal gaztedia ere aldatua arkituko ote zuten. Jainkoak libra gaitzal Hori ezin zitekean. Lehen bezela behar zuten, dena lehen bezela. Etziren lehengo oitura zaharrak auzutzeko kapaz izango. Oraindik an igande arratsaldeetan euskal dantza jatorrak dantzatuko ziren beintzat. Bai, orrela behar zuten. Bera, ameriketan diru piltzaten egon zan bitartean, bestek beren semeek euskal giro ederrean asiko zituela, bihotzez sinesten zuten. Euskal zaletasuna ugaritzeko zerbañt egingo zutela. Berak beintzat, denbora galtea baino zerbañt gaigo egin zuten Ameriketara. Euskal herria eldu baino egin batzuek lehenago, euskal egutegi batzuek argitaratuko dirua eman zuten, eta diruak bere odola ta izefidiarekin trabaziak zuden. Orregatik, dirua ematea izeidia ta odola ematea zen...

Gaztedia zen bai, gure zahararen kezka. Euskal izkuntza ta oitura zaharret eutsi behar zion gaztedia... Euskal herriko plazeetako arratsaldeak... Txistua, danbo-

vreau eta chevreuil. Jakiña nik frantzezek irakurri nuan Hemingwayen nobela, eta pentsatu nuen Jordanan eta gure zaldunen gustuak berdiñak zirela afizio oietan.

Gero orkatzen izen onek, amets eginarazi nau maiz, eta nereko nion, zein polita litzaken orobat andregaiari izen berdiñagaz deitzea, batez ere andregaiak, Angelines, Pili, Mili, Joxepa edo Manoli... edo beste edozeinek uxatuaren uxatuz poesi guzia galdu duen izenak bat baldin balu; eta pentsatu nuen behar nuela propaganda apur bat egin Euskal herriko mutilak ausartu ditezten moda zahar dotorea berritzen. Arren prueba egin dezatela, euren andregaiari, Angelines, Pili edo Joxepa deitu beharrean, «Orkatza» deitu dezaiotela, batez ere maite, solasaren une beroenian...

Poesi gabeko izen orien kulpa gatik andregairik gabe geratu diranak badira. Ain zuzen ere nere kausa ori izan da. Izan orietako bat usatu beharrak olako momentuetan, pentsatzeak bakarrik «complejo de frustración» izugarri batek menperatzen ninduan.

Baiñan orain gure arbaso ez-egun haren exenplu arturik, bildurra gutxitzen ari zait eta sonatzen dut nere baitan ausardi lotsagabe bat ari dela, ari dela, altxatzen. Laister nere ausardi onek Altserriko lau metroko bisontearen itxura artuko da eta orduan Bisontea ez da lotsatuko orkatza emearengana urbiltzen, eta inguruko azeri eta zezenak uxaturik, dittekan abots eztenarekin esanen dio: «Ene Orkatza, maitehoena, esadiaz neria zerala!». Eta seguru nago, Orkatzak begiak itxirik baiezkoa emango diola.

MIKEL LASA

gure begien aurrean ditugun ondorioei ekin nahi izatea da.

Gure arteko haundikiak, beraz, ba dute hor zer pentsaturik. Nor da gaurko haundikiak? Agintaritza duena edo izan dezakeana, gure herria alde hantutik edo hartatik zuzentzen duena edo zuzenduko nahi duena.

Gaurko haundikiak, hortaz, Euskal Herriko intelektualaak dira eta herriaren gora-beherak beren eskuetan dituztenak.

«Tradúceles» esan behar dutenak, betiko hildoiari jarraitzen diote. Ez dago huntan zalantzarik: euskaldunak ez dan haundikiak, «itzul egiek» esan behar duen euskal-intelektuala, besterik esan arren, besterik uste izan arren, betiko bidean barrena abiatua da. Ez du gure lehenarekin hautsi.

Haundikiak haundi izateko, intelektuala gure izateko, orain arteko zoritxar-iturria agortzeko, bide bat besterik ez dute agintari izan nahi dutenek: «tradúceles» horri erabat uztea. Itzuli behar baldin badute (eta ongi dakit hori ere behar dugula) itzul bezate erdalduntzat, eta ez etxekoentzat. Ba da garaia bertakoak nagusi eta etxekotzat har ditzagun!

GOIHENETXE

liña... Txistulari onenak eramango zituen plazara, Egun artan denak behar zuten dantzatu baita zaharrak ere!

Zaharra plaza erdian zegoen. Ameriketatik ekarritako automobil zoragarriaren ondoan. Txistulariak, gogor ekiten zioten jotzeari. Zaharra larri zegoen... Gazteek etziren plazara joaten. Lehiok itxiak zuden... Txistulariak euskal musika alaiena jotzen zuten... Alako batean, lehiok iriki ziren eta etxe barrenetan lanean zuden gazte batzuek ateraz, zer gertatzen zen ulertu gabe, berrito lana egiten jarraitu zuten...

Txistulariek, jo ta jo, gelditu gabe. Zaharra, begietan malloak, aurpegian bihotzeko miña nabaitzen zitzaizkion... Bainan zahararen pozgarri izateko, momentu bat pasa ondoren, lotan zuden gazte batzuek, musika soñuarekin esnatuak, saltaka asi ziren algaraz. Gizon zaharrak gazte alai hateri besarkada bana eman zien, jainkoari eskerrak ba zuden oraindik gazte jatorrak Euskal herrian... Etzen beranduz gauzak zuzentzeko... Ameriketatik etorritako zahar dirudunak, ahal ziran periodiko, irratia eta gainerontzako erosi zituzten, gaztedi langillea, folklore utzarekin denbora pasa nahi etzuen, jorrazteko. Horrela gaztediak zer esatekori ba zeukan, nun esan etzuen izango.

SAIZARBITORIA